

Egoitza zentroa edo etxebizitza zerbitzua buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzat

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzako egoitza plaza eskaera.

Elkarbizitza zentroak dira, eta ohiko bizileku edo bizileku iraunkorra eta, hala dagokionean, aldi baterako bizilekua izan behar dute buruko gaixotasun larri eta kronikoa duten eta mendekotasun egoeran dauden per tso nen tzat, per tsona hauek bere ohiko ingurunean ezin dituztenean behar bezala ase dauzkaten premiak.

Zentro horiek laguntza maila desberdinak eskaini beharko dituzte, mugatua, zabala edota orokorra, zaindutako pertsonak dituzten beharretara egokiturik. Eta pertsona horiei mantentze edota errehabilitazio funtzionalerako eta psikosozialerako programak eta gizarteratzeko programak eskainiko dizkiete, autonomia pertsonala hobetzeko eta mantentzeko, hondar-sintomatologia murrizteko, ospitaleratze psikiatrikoak saihesteko eta gizarteratzea ahalbidetzeko.

[Zentrozen direktorioa](#) kontsultatu (BEHAGI)

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
- Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Buruko gaixotasuna dutenei eta eguneroko jardueretako laguntza behar duten pertsonari.

Baldintzak

- Espainiar **nazionalitatea** edo Europar Batasuneko edozein estatutakoa izatea eta gutxienez bost urtez bizi izana estatuko lurraldean; urte horietatik bik eskaera aurkezten den dataren aurretik hurrenekoak izan behar dute. Europar Batasunekoak ez diren estatuetako hiritarrek direnean eta espainiar nazionalitatea ere ez dutenean, onartua izatea espainiar estatuko egoitza legala, eta legez eta egiaz bost urtez bizi izana bertan; urte horietatik bik eskaera aurkezten den dataren aurretik hurrenekoak izan behar dute. Aurretik egoitza bertan izatearen baldintza betetzetik salbuetsi ahal izango dira EAEn jaiotako pertsonak zein hauen ondorengoak, atzerrian bizi direlarik espainiar nazionalitatea mantentzen dutenak, bere azken administrazio-auzotasuna Gipuzkoako Lurralde Historikoan eduki badute eta itzuli nahi badute.

- Eskaera aurkezten den unean Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean **errolatuta** egotea eta benetan horretan bizi izatea.

- Mendekotasun egoeran dagoen pertsonentzat **baloratuta** egotea, **I., II. edo III. graduaz**, 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak ezartzen duen mendekotasun egoeraren balorazioarako baremoa onartzeko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuak edo horren ordezkio edo garapenerako araudiak xedatuaren indarrez eta, betiere, zerbitzu bakoitzerako ezartzen diren berariazko baldintzekin bat.

- **18 eta 64 urte bitarteko adina** izatea eskaera aurkezten den datan. Baldintza hau betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aldeko txosten medikuaren eta sozialaren ondotik, mendekotasun egoera aitortu zaien eta dituzten zertzelada pertsonal edo sozialak direla-eta mota horretako zentroetan ematen den arretaren onuradun izan daitezkeen pertsonak.

- **Osasun mentaleko arreta sare publikoan** arta jaso tzen ari izatea eta Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordeak egokitzen bideratua izatea, eskatutako zerbitzurako.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Eskaera](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskatzailearen eta, hala dagokionean, eskatzen den baliabidean sartu ahal izatera begira konputatzen diren familia unitateko beste kideen nortasuna frogatzen duen dokumentu ofizialaren fotokopia.

- Hala dagokionean, ordezkaritza legala, borondatezkoa edo izatezko zain tza frogatzen duen dokumentazioa.

- Aurreitazko baimen judiziala edo hori eskatu delako frogagiria, ustezko desgaitasuna den kasuetan.

- Banantze, dibortzio edo ezkontzaren deuseztasun kasuan, horri dagokion erabakiaren fotokopia, eta izatezko bikotea hautsi den kasuan, dagokion erregistroaren ziurtagiria, bikote horren inskripzioa deuseztatu izana egiazta tze koa.

- Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako ondasunen titularitatea frogatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.

- Gainera, 7/2017 Foru Dekretuko 5. artikuluko a) letrako 2., 3. eta 4. paragrafoetan aipatzen diren eskatzaileek aurkeztu egin beharko dute letra horretan jasotako baliozkoetakoren batean daudela frogatzen duen dokumentazioa.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

[Udal Gizarte Zerbitzuak Osakidetzako Osasun Mentaleko Zentroak](#)

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

- Itxarote-zerrenda onartua izateko: 3 hilabete, behar bezala betetako eskaera oinarritzko gizarte zerbitzuetan sartu denetik kontaktzen hasita.
- Sartzeko: ez dago eperik.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz » Telefono bidezko komunikazioa

ARAUDIA

[2015eko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretua](#), Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena (GAO 59. 2015-03-30). [Akats zuzenketa](#) (GAO 90. 2015-05-15).

[15/2015 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa](#), Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

[2016ko maiatzaren 24ko 12/2016 Foru Dekretua](#), zeinaren bidez aldatzen baita 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

[30/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18koa](#), zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onartzen dituena eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

[Nola kalkulatzeko ordaindu beharrekoa.](#)